ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2026ko azaroaren 23a, astelehena • 135 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

386/2026 Foru Agindua, azaroaren 13koa. «Guardiako plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntuala, 34. eta 36. eremuei buruzkoa» delakoaren ingurumen txosten estrategikoa egiteko

«Guardiako hirigintza plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntuala, 34. eta 36. eremuei dagokiena» ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozeduraren mende dago. Prozedura hori 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, eta 10/2021 Legeak, abenduaren 9koak, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoak, arautzen dute. Horregatik, Opedemar, SL enpresak, proiektu horren sustatzaile den aldetik, dokumentazioa bidali dio Guardiako Udalari, eta hark, era berean, idazki bat bidali dio Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, dagokion ingurumen txosten estrategikoa egin dezala eskatzeko. Horretarako, beharrezko dokumentazioa jarri du haren eskura (ingurumen dokumentu estrategikoa, 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, araututako gutxieneko edukiarekin bat datorrena, eta Guardiako plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntual horren zirriborroa).

10/2021 Legeak 62. artikuluan ezarritakoaren arabera, Arabako Foru Aldundiko ingurumen organoari dagokio ingurumen txosten estrategiko hau egitea, dagokion plana behin betiko onartzeko eskumen substantiboa Arabako Lurralde Historikoko foru organoari baitagokio.

Prozedura horren esparruan, ingurumen organo honek kontsulta prozesua egin du eragindako administrazio publikoekin eta interesdunekin, beren iritzia eman dezaten, 10/2021 Legeak, abenduaren 9koak, 75. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Kontsulten aldia amaitu ondoren, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, Natura Ingurunearen Zuzendaritzak eskatuta, ingurumen txosten estrategiko hau egin du, sustatzaileak emandako informazioa, egindako kontsulten emaitza eta planak ingurumenean dituen ondorioen ebaluazioa kontuan hartuta.

Ingurumen txosten estrategiko hau nahitaezkoa eta loteslea izango da, 10/2021 Legeak, abenduaren 9koak, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoak, 75.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak egin zuen 2026ko urriaren 15ean (26/04 EAE espedientea).

1. Aurrekariak

Aurrekari gisa, adierazi behar da aurretik izapide bat hasi zela «Guardiako hirigintza plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntuala, 36. eremuko erabilera bateragarriei dagokienez: iparraldeko industria eremuan eraikin berria egitea, bai eta eraikinen altuerari buruzko eraikuntza baldintzak ere» izeneko aldaketa proposamenarekin. Proposamen horren hasierako onespenerako bigarren bertsioa egin zen, eta dagokion ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura hasi eta amaitu zen, ingurumen ebazpena emanda (56/2026 Foru Agindua, otsailaren 26koa, 2026ko martxoaren 6ko ALHAOn 28. zenbakian argitaratua).

Erabilera bateragarri berriak sartzea aurreikusten zuen lehen proposamen horretan, eragozpen bat zegoen: 36. eremuaren azalera txikiegia zen aurreikusitako erabilera bateragarriak erabilera nagusiarekiko, hau da, industria erabilerarekiko, proportzio egokian hartzeko.

Guardiako Udalak bigarren aldi honetan aurkeztutako dokumentazioaren bidez, hau da, «Guardiako hirigintza plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntuala, 34. eta 36. eremuei dagokiena» delakoaren ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuari buruzko dokumentazioaren bidez, aurreko proposamenean antzemandako eragozpenak kontuan hartu eta konpondu nahi dira.

2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa. Aldaketa puntualaren deskribapen laburra. Aztertutako aukerak

2.1. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa.

Proposatutako aldaketa puntualak 36. eremuari eragiten dio. Eremu horrek 22. poligonoko 494-A, 496-A eta 1063-A hiri lurzatiak hartzen ditu. Halaber, 34. eremuari ere eragiten dio. Eremu horrek 5. poligonoko 1781, 1760, 1584, 1585 eta 1586 hiri lurzatiak hartzen ditu. Baita 22. poligonoko 1180, 534, 1077, 1053, 1052, 529-A, 1056, 1055-A, 1054-A, 537, 538, 539 eta 540 lurzatiak ere.

Lurzati horiek Guardiako herrigunearen iparraldean daude, hiri lurzoruaren, lurzoru urbanizagarriaren eta lurzoru urbanizaezinaren arteko mugan. Iparraldean landa lurzoruarekin egiten dute muga; hegoaldean, 35. eta 37. eremuekin; ekialdean, La Hoya bidearekin; eta mendebaldean, lurzoru urbanizagarriko 33. eremuarekin eta landa lurzoruarekin.

36. eremuaren azalera 12.450 m^2-koa da, eta 34. eremuarena, berriz, 46.450 m^2-koa. Beraz, indarrean dauden fitxen arabera, bi eremuen azalera 58.900 m^2-koa da guztira. Hala ere, sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan adierazten denez, planoan egiaztatu ondoren, baieztatu da bi eremuen (34. eta 36.) benetako azalera, hau da, jarduketa eremuaren azalera, 78.425 m^2-koa dela guztira.

Plano orokor honetan eta xehetasunezkoan (goi-eskuinaldean) 34. eta 36. eremuen kokapena ikus daiteke, Guardiako udalerriaren iparraldean:



2.2. Proposatutako aldaketaren deskribapen laburra.

Guardiako udal plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntual honen xedea da 36. eremua 34. eremuan sartzea eta 34. eremuan erabilera bateragarri berriak gehitzea, orain arte industria erabilera orokorra baino ez baitzuen zehazten. Horrez gain, altuerari buruzko hirigintza parametroa eguneratzea proposatzen da, indarrean dagoen hirigintza antolamendua eremuaren lurralde eta funtzio errealitatera egokitzeko beharrari erantzuteko, hirigintza araudiaren koherentzia hobetzeko eta udalerrian ezarritako jarduera ekonomikoen garapen egokia sustatzeko.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Horretarako, 34. eremuko (iparraldeko industria eremua) hirigintza fitxa aldatzen da, eta 36. eremuko (iparraldeko industria eremuko eraikin berria) hirigintza fitxa kentzen da. Hainbat aldaketa proposatzen dira, baina garrantzitsuenak lurzati libreetan eraikin berriak zuzenean egiteari buruzkoak eta honako hauek dira:

— Erabilera bateragarri berriak sartzea (lehen industria erabilera baino ez zegoen):

• Aisialdi erabilera.

• Kirol erabilera.

• Administrazio erabilera eta zerbitzu publikokoa.

• Aparkaleku erabilera.

• Hirugarren sektoreko erabilera.

• Upeltegien erabilera.

— Erabilera bateragarrien hirigintza eraikigarritasuneko gehienezko ehunekoa, erabilera nagusia den industria erabilerarekin alderatuta: ehuneko 50.

— Eraikinen gehieneko profila beheko solairua + 1 izango da, eta gehieneko altuera 11,50 metrokoa (lehen 9 metrokoa zen).

— Eraikin berriak egiteko lurzatietarako aparkaleku zuzkidura aurreikustea.

— Lurzatiaren aurrealdeko kale tartea lurzatiaren kontura urbanizatzea eta zerbitzu orokorretarako hartune guztiak egitea, II.5.1 planoan jasotako lerrokaduretara egokituta.

— II.5.1 planoaren arabera erabilera eta jabari publikorako diren kaleari dagozkion lursailak doan lagatzea, urbanizatu ondoren.

2.3. Aztertutako aukerak:

21/2013 Legeak ezartzen du ingurumen ebaluazioan arrazoizko aukeren azterketa ere jaso behar dela, teknikaren eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren eta planaren edo programaren helburuak eta aplikazio eremua kontuan hartzen dituzten aukerena, hain zuzen ere, plan edo programa aplikatzeak ingurumenean eragin ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitzeko edo gutxitzeko. Alde horretatik, sustatzaileak 3 ikuspegi nagusi planteatu ditu aukeren proposamenetan: lurraldearen erabilerak, eremuen kokapena eta banaketa, eta eraikin eta instalazioen kokapena. Guztira, honako aukera hauek planteatu dira, sustatzaileak emandako dokumentazioaren arabera:

Egungo egoerari eustea edo jarduketarik ez egitea (hautatu gabea):

Sustatzaileak adierazten duenez, aukera hori bat dator Arabako Errioxako Lurralde Plan Partzialaren eta dagozkion sektore planen helburuekin, eta inpaktuak arau subsidiarioek industria eremuetan baimentzen dituzten industria jardueren motari eta tamainari lotuta egongo dira. Indarrean dagoen antolamenduari eustean datza, 34. eta 36. eremuen arteko bereizketa mantenduz eta 36. eremuan egungo araudia bere horretan utziz, erabilera bateragarri berririk sartu gabe eta eraikinen altuera aldatu gabe.

Erabilera berriak hiri lurzoru edo lurzoru urbanizagarri berrian ezartzea (hautatu gabea):

Eskari funtzionalari erantzuteko, aurreikusitako erabilera bateragarriak hartzeko lurzoru berriak sailkatzean edo garatzean datza. Sustatzaileak adierazten duenez, aurreikusitako erabilerak hartzeko hiri lurzoru berria hornitzea ez dator bat aldaketa puntual berriaren oinarrian dagoen lehendik finkatutako eremuak berrerabiltzeko eta optimizatzeko helburuarekin. Gainera, oro har, ingurumen portaera okerragoa izango luke, urbanizatu gabeko lurzoru gehiago okupatu beharko litzatekeelako, eta horrek nekazaritza edo ingurumen balioa duten lurzoruei eragin liezaiekeelako, udalerrian dagoeneko industria erabilerako hiri lurzorua badagoela kontuan hartuta.

Erabilera berriak bizitegi edo hirugarren sektoreko hiri lurzoruan ezartzea (hautatu gabea):

Erabilera bateragarri berriak udalerriko bizitegi edo hirugarren sektoreko hiri eremuetan kokatzeko aukera ematean datza. Aukera horrek areagotu egiten du bizitegi erabilerekin bateraezintasun funtzionalak eta ingurumenekoak sortzeko arriskua, bereziki eragozpenengatik, mugikortasunagatik, paisaian integratzeko zailtasunengatik eta, eraikinen altuera handitzen denean, eguzkiztapenari eragiteagatik. Gainera, ez dator bat aurreikusitako erabileraren lurralde eta funtzio logikarekin, erabilera horrek industria izaerako eremu batean bateragarria izaten jarraitzen baitu.

Industria erabilerako hiri lurzoru osoan erabilera bateragarriak onartzea, 34. eta 36. eremuak berariaz integratu gabe (hautatu gabea):

Irismen handiagoko aldaketa bat egitean datza, erabilera bateragarriak udalerriko industria erabilerako beste hiri lurzoru batzuetara zabalduz, antolamendua 34. eta 36. eremuen integrazioan oinarritu gabe. Sustatzaileak adierazten duenez, aukera hori teknikoki bideragarria da, baina bi eragozpen nagusi ditu:

• Aldaketaren lurralde irismena alferrik zabaltzen du, benetan identifikatutako arazoari dagokionez.

• Hirigintza egokitzapenaren zehaztasuna murrizten du.

Sustatzaileak adierazten duenez, ingurumenaren ikuspegitik, aukera hori ezin da hobetsi eremu zehatzago batera mugatutako eta beharretara hobeto egokitutako irtenbide baten aldean, irismen handiagoko jarduketak ahalbidetzeko esparru bat ezarriko bailuke, berariazko justifikazio gehigarririk gabe.

36. eremua 34. eremuan integratzea, ondoriozko eremu osoarentzat araudi bateratua ezarrita (hautatutakoa):

36. eremuko fitxa independentea kentzean eta eremu hori 34. eremuan sartzean datza, eremu osoarentzat antolamendu bateratua ezarrita, industria erabilera orokorrari eutsita, erabilera bateragarriak sartuta, horien eraikigarritasuna industria erabilera bereizgarriaren ehuneko 50era mugatuta eta eraikinen gehieneko altuera eguneratuta. Adierazten da aukera hori dela aldaketaren helburuei zuzenen erantzuten diena, eremuaren lurralde eta funtzio errealitatera egokitzen delako, lurzoru berririk okupatzen ez duelako, eremu osoaren indarreko eraikigarritasun orokorrari eusten diolako, erabilera bateragarriak modu orekatuagoan ezartzeko aukera ematen duelako, industria erabileraren nagusitasuna mantentzen duelako eta arau egitura sinplifikatzen duelako.

Ingurumen dokumentu estrategikoan aukeren irizpide anitzeko ingurumen azterketa egiten da, lurzoruaren kontsumoa, lurralde eredua, biztanleenganako eragina, mugikortasuna, paisaiak, baliabideen kontsumoa eta abar kontuan hartuta. Azterketa horren ondorioz, 36. eremua 34. eremuan integratzeko azken aukera, ondoriozko eremu osoarentzat araudi bateratua ezartzen duena, ingurumen portaera onena duena eta aldaketa puntualaren helburuak hobekien betetzen dituena dela ondorioztatzen da.

3. Kontsulta aldiaren laburpena

Taula honetan kontsulta egin zaien erakunde, entitate eta elkarteak agertzen dira, baita horietako zeinek erantzun duten ere:

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza	√
URA - Uraren Euskal Agentzia	√
EEE - Energiaren Euskal Erakundea	
IHOBE- Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	
Arabako Kontzejuen Elkartea	

Arabako Natur Institutua – ANI	
Eguzki talde ekologista	
Ekologistak Martxan Araban	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Hontza Natura Elkartea	
Gaia elkartea	
Mendizaleen Federazioa. Ingurumen Atala	
Aranzadi Natura Zientzien Elkartea	
SEO Birdlife – Espainiako Ornitologia Elkartea	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
Guardiako Udala	
Arabako Errioxako Kuadrilla	
Arabako Errioxako "Peña Leon" Lan Garapeneko Elkartea	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Lurralde Antolamendu eta Hirigintza Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua (Ura)	
Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzua	√

Era berean, espedientearen dokumentazioa jendearen eskura jarri zen Arabako Foru Aldundiaren webgunean.

Jarraian, jasotako erantzunetan adierazitakoaren laburpena egingo da (alegazioen edo iritzien kopia osoa Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Irekiaren Atarian – https://irekia.araba.eus –, informazio publikoaren atalean, ingurumen ebaluazioaren kategorian, 26/04 EAE S espedientean):

— Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak bere txostenean jasotzen du —dokumentazioa aztertu ondoren— ez dagoela eragozpenik baimendutako erabilerak zabaltzeko, eremuan ez baitago intereseko kultura ondasunik. Era berean, adierazten da, eremu horietako eraikinen altuera handitzeak Arabako Errioxako ardoaren eta mahastiaren kultura paisaiako monumentu multzoetan edo Guardiako hirigune historikoan izan dezakeen ikusizko inpaktua behar bezala baloratzeko, ikusizko azterketak egin behar direla Guardiako hirigune historikora sartzeko errepideetatik eta hiriguneko begiratokietatik paisaiarantz. Halaber, paisaian integratzeko irizpideak eta neurriak ezarri behar dira, monumentu multzo horietan ikusizko kutsadura saihesteko, inpaktuak prebenitzeko, zuzentzeko eta konpentsatzeko.

— Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Zuzendaritzak uste du arau subsidiarioen aldaketak ez duela eraginik Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialaren araudian.

— Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bere txostenean jasotzen du aldaketa puntualaren eremua ez dagoela eremu arkeologiko baten mugaketaren barruan, baina 31. eta 34. eremuen iparraldean eta 31. eta 32. eremuen ekialdean oso hurbil dauden eremu arkeologikoak badaudela (La Hoyako herrixka eta La Costera eta El Cerrado). Horregatik, etorkizunean eremu horien muga osoan egingo diren lanen kontrol arkeologikoa egitea gomendatzen da. Proiektuan egiten den eta arkeologian eragina izan dezakeen edozein aldaketa eta lan guztiak egin bitartean gertatzen den edozein aurkikuntza arkeologiko berehala jakinarazi beharko zaizkio Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari, 6/2019 Legeak, Euskal Kultura Ondareari buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

— URA - Uraren Agentziak lehenengo txostena prestatu eta bertan zehazten du eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaiola, egokitzat joz gero gaiaren gainean informatzeko, betiere abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, ezarritakoarekin bat etorriz. Bigarren txosten batean, URA - Uraren Euskal Agentziak adierazten du saneamenduari

dagokionez gogorarazi behar dela garapen berrietarako irizpide orokorra lehendik dauden sare eta sistemetara konektatzea izango dela, jabari publiko hidraulikora hondakin uren isurketa berririk egin gabe eta ur horien tratamendu egokia bermatuta. Horregatik, aldaketa honen espedientean sartu beharko da ur hornidurako eta saneamenduko zerbitzuak kudeatzen dituen erakundearen (CARA) txostena, lehendik dauden azpiegiturak aldaketa honen ondoriozko garapenei zerbitzua emateko nahikoak diren ala ez zehazteko.

— Arabako Foru Aldundiko Natura Ondarearen Zerbitzuak erreferentziako planaren aldeko txostena egin du, aurreikusitako plangintza bat datorrelako eremuko ingurumen balioak kontserbatzeko helburuekin, beharrezkoak izan daitezkeen beste baimen batzuk gorabehera. Adierazten da proposatutako aldaketa ez dagoela Natura 2000 Sareko natura gune babestu baten eremuan, ezta Arabako Lurralde Historikorako kudeaketa plana onartuta duten fauna mehatxatuaren interes bereziko eremuetan ere. Uste da erabilera bateragarrien artean espazio libreen erabilera sartu beharko litzatekeela, eta 34. eremu berriaren iparraldean (538. eta 539. lurzatiak) eta hegoaldean (1178. lurzatiaren hegoaldea) parkeak eta berdegune publiko nagusiak ezartzeko erabilera xehatua aztertu beharko litzatekeela, lehentasunezko Batasunaren intereseko 6220* habitataren (*Thero-Brachypodietea* klaseko gramineoen eta urteko landareen eremu subestepikoak) zati bat berezko egoeran mantentzeko. Gainera, berdegune gisa proposatutako bi eremu horiek nagusiki nekazaritza erabilerako lurraldearekin egiten dute muga. Horrenbestez, korridore ekologiko eta fauna espezie askorentzako babesleku izango lirateke, bai eta aldaketa puntualaren xede den eremu osoaren moteltze eremu ere.

— Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzak bere txostenean jasotzen duenez, dokumentazioa aztertu ondoren, ez da kultura ondarean eraginik antzeman.

4. Ingurumen balorazioa. Ingurumen inpaktu nagusiak

Ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatuan proiektuak ingurumenean eragin nabarmenik eduki dezakeen analizatu da, eta, hala bada, ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egitea zehaztu da. Analisi hori egiteko, kontuan hartzen dira egindako kontsulten emaitzak eta 21/2013 Legearen V. eranskinean eta 10/2021 Legearen II. C eranskinean jasotako irizpideak. Irizpide horiek guztiak aztertu ondoren, jarraian ingurumen organo honen iritziz plan honetarako egokiak direnak aztertzen dira. Edonola ere, azterketa hori indarreko ingurumen-ebaluazioaren arautegian ezarritako ondorioetarako egin da, betiere, beharrezkoak izan daitezkeen baimen, lizentzia edota nahitaezko txostenei kalterik egin gabe.

«Guardiako hirigintza plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntuala, 34. eta 36. eremuei dagokiena» delakoaren eremuak gizakiak eraldatutako lurzoru bati eragiten dio. Lurzoru hori gaur egun hiri erabileretarako erabiltzen da, eta hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta dago. Beraz, ez dio lurzoru urbanizaezinari eragiten.

Inpaktu nagusia industria erabilera edo erabilera bateragarria duten eraikinak (olgetarakoak, kiroletakoak, administraziokoak eta zerbitzu publikokoak, aparkalekuak, hirugarren sektorekoak eta upeltegikoak) egitearen ondoriozkoa izango litzateke. Eraikin horien teilatu hegalaren garaiera gaur egun eraiki litezkeenena baino handiagoa izan liteke, eta 9 m-tik 11,5 m-ra pasatuko litzateke, aldaketak sustatzen duenaren arabera. Nolanahi ere, indarrean dagoen udal hirigintza plangintzak dagoeneko ahalbidetzen du industria erabilerako eraikinak egitea, teilatu hegalaren altuera 9 metrokoa izan arte. Beraz, aldaketa hori onartzearen ondorioz sortuko liratekeen ingurumen ondorio osagarriak ez dira oso aipagarritzat jotzen.

Aldaketa puntualaren xede diren 34. eta 36. eremuetatik 730 metro eskasera, honako naturagune babestu hauek daude, baina ez da haien gaineko inpakturik aurreikusten:

— Nazioarteko garrantzia duen Ramsar hezegunea, Guardiako aintzirak, Carralogroño, Carravalseca, La Paul urmaela eta Musco aintzirek osatua: hezeguneetako hiru, Carralogroño, Carravalseca eta Musco, aldi baterako aintzira endorreikoak dira, jatorri eta funtzionamendu naturalekoak; laugarrena, berriz, La Paul urmaela, antzina urpean egoten zen eremu batean sortutako urtegi txiki bat da.

— Guardiako Aintzirak kontserbazio bereziko eremua (KBE, ES2110021), Ramsar hezegunearekin bat datorrena.

34. eta 36. eremuak ez datoz bat ingurumen babeseko figurekin, hala nola Arabako Foru Aldundiak katalogatutako paisaia berezi edo apartekoekin, ezta korridore ekologikoekin, kudeaketa plana onartuta duten fauna mehatxatuko espezieak dauden eremuekin edo onura publikoko mendiekin ere.

Landaredi naturalean izango duen eraginari dagokionez, nabarmendu behar da Batasunaren intereseko lehentasunezko 6220* habitataren azalera handi bati (25.000 m^2 inguru) eragingo liokeela. Habitat hori "*Brachypodium retusum* espeziearen larre xerofiloa" da. Egia bada ere lurzati horietako batzuen zati txiki batean habitat hori degradatuta edo modu mugatuan agertzen dela, 538, 539, 494-a, 1586 eta 1781 lurzatietan egoera onean dagoela uste den ekosistema bat dago, eta funtzio ekologiko garrantzitsua izan dezake hainbat espezierentzat, batez ere ornogabeentzat, anfibioentzat, narrastientzat, estepako edo nekazaritza inguruneetako hegaztientzat eta ugaztun txikientzat.

Habitat hori larre xerofiloek osatzen dute, gutxi-asko irekiak, hainbat gramineo eta urteko landare txikiz osatuak, substratu lehor, azido edo basikoen gainean eratuak, gutxi garatutako lurzoruetan. Hala ere, bi ohar egin behar dira habitat horretan duen eraginari buruz. Alde batetik, oraingo plangintzak ez luke eragotziko habitat horretan kalteak eragitea; beraz, aldaketa puntualak ez du ingurumen ondorio gehigarririk sortuko. Bestalde, 6220* habitata oso nabarmena da Arabako Errioxan, eta hasierako habitata da segida ekologikoko etapetan, eta erraz ezartzen da berez zenbait lurretan, hala nola ezpondetan eta lugorri utzitako nekazaritza inguruneetan.

Nolanahi ere, aldaketa puntualak espazio libreen erabilera bateragarritzat hartu beharko du, eta lurzati bakoitzean eraikigarritasunari dagokion zatia eta espazio libreei dagokiena banatzean, ahalegina egin beharko da hobekien kontserbatutako 6220* habitatak espazio libre horietan sartzeko, berdegune natural gisa kontserbatzeko. Horrela, 34. eremu berriaren iparraldean (538. eta 539. lurzatiak) eta hegoaldean (1178. lurzatiaren hegoaldea) dauden habitatek beren kontserbazio egoera naturala mantendu beharko dute, korridore ekologiko eta hainbat fauna espezierentzako babesleku izaten jarrai dezaten, bai eta industria eremu osoaren moteltze eremu izaten ere.

Hurrengo irudian, gorriz ageri da ebaluazioaren xede den aldaketa puntualaren eremua, eta berdez, Batasunaren intereseko lehentasunezko 6220* habitata.



Kultura ondarearen gaineko eraginari dagokionez, kontuan hartu behar dira Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak eta Museo eta Arkeologia Zerbitzuak kontsulten fasean alegazioei buruz egindako txostenak.

Uste da aldaketa puntualak paisaian izango dituen ondorioak ez direla esanguratsuak izango, indarrean dagoen plangintzak dagoeneko ezartzen duenarekin alderatuta. Nolanahi ere, administrazio organo eskudunek, hala badagokio, ezartzen dituzten oharrak hartuko dira kontuan, eragina jasan dezakeen eremua Arabako Errioxako ardoaren eta mahastiaren kultura paisaiako monumentu multzo eta Guardiako hirigune historikoko monumentu multzo gisa kalifikatzeari dagokionez.

Era berean, etorkizunean 34. eremu berriaren muga osoan egingo diren lanen kontrol arkeologikoa egin beharko da, eremu arkeologikoetatik hurbil dagoelako, Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak alegazioei buruzko txostenean ezartzen duen bezala.

Uren kalitateari dagokionez, eta zehazkiago hondakin uren saneamenduari dagokionez, arlo hidraulikoan eskumena duen organoaren alegazioak kontuan hartuta, aldaketa honen espedientean sartu beharko da ur hornidurako eta saneamenduko zerbitzuak kudeatzen dituen erakundearen (CARA) txostena, lehendik dauden azpiegiturak aldaketa honen ondoriozko garapenei zerbitzua emateko nahikoak diren ala ez zehazteko.

Horregatik guztiagatik, ingurumen integraziorako eta kultura ondarea babesteko neurri egokiak ezarriz gero, eta eragina jasan dezakeen eremuaren ezaugarriak kontuan hartuta, bai eta jarduketen aurreko egoeran eremu horretako lurzati gehienak dagoeneko urbanizatuta daudela eta gainerakoak ere epe laburrean urbanizatzeko aukera dagoela, indarrean dagoen udal hirigintza plangintzaren arabera, ez da espero ingurumen ebaluazioaren xede den aldaketa puntuala behin betiko onartzeak ingurumenean ondorio negatibo esanguratsu berririk eragitea. Horri dagokionez, uste da ingurumen inpaktuak bateragarriak izango liratekeela, eta, neurri txikiagoan, moderatuak zenbait alderditan, hala nola lurzoruan, hondakinen sorreran, landaredian edo kultura ondarean. Neurri babesleak eta zuzentzaileak hartuta, eta planteatzen den hirigintza garapen berria gauzatzen den bitartean lur mugimenduak behar bezala minimizatu eta kontrolatuta, sor litezkeen ondorio negatiboak oso nabarmen arindu edo saihestu ahal izango direla uste da. Ondorioz, esan behar da aldaketak, adierazitako neurriak hartuta, ez lukeela eragingo ingurumen inpaktu berri aipagarririk sortu edo indarrean dagoen antolamenduan aurreikusitakoak alda ditzakeen jarduketarik, eta ez dela ingurumen aldetik oso sentikorrak diren zonen barruan sartzen; beraz, ez da espero ingurumenean eragin nabarmenik izango duenik.

Ondorioa:

Azaldutakoa kontuan hartuta, ingurumen organo honek ondorioztatu du «Guardiako hirigintza plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntuala, 34. eta 36. eremuei buruzkoa» delakoak ez duela eragin esanguratsurik ingurumenean, ingurumen txosten estrategiko honetan ezarritako baldintzetan, eta, beraz, ez dela 21/2013 Legeak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, II. tituluaren I. kapituluko 1. atalean aurreikusitako ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren mende jarri behar. Nolanahi ere, eta ondorio horietarako, hurrengo apartatuan sustatzaileak hartu beharreko ingurumen baldintza batzuk ezartzen dira.

5. Ingurumen baldintzak

Ingurumen dokumentu estrategikoaren 14. apartatuan, neurri batzuk proposatzen dira aldaketa puntuala aplikatzeak ingurumenean eragin dezakeen edozein ondorio negatibo esanguratsu prebenitzeko, murrizteko eta, ahal den neurrian, zuzentzeko, klima aldaketa kontuan hartuta, bai eta ingurumen jarraipena egiteko ere. Neurri horien osagarri, hirigintza dokumentuak honako neurri hauek hartu beharko ditu kontuan, araudi espezifikoan sartzeko: Neurri horiek guztiak hartu ezean, ezin da ziurtatu jarduketak eragin esanguratsurik izango ez duenik; kasu horretan, plana ingurumen ebaluazio estrategiko arruntaren prozeduraren mende jarri beharko litzateke:

A. Ingurumen dokumentu estrategikoan (14. apartatua) jasotako ingurumen integraziorako neurriak «Guardiako hirigintza plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntuala, 34. eta 36. eremuei buruzkoa» izeneko hirigintza dokumentuaren araudian sartu beharko direla uste da.

B. Aldaketa puntualaren araudiak «espazio libreen» erabilera bateragarritzat hartu beharko du, aldaketa puntualean adierazitako sei erabilera bateragarriez gain. Lurzati bakoitzean eraikigarritasunari dagokion zatia eta espazio libreei dagokiena banatzean, ahalegina egin beharko da hobekien kontserbatutako 6220* habitatak «espazio libre» horietan sartzeko, berdegune natural gisa kontserbatzeko. Horrela, 34. eremu berriaren iparraldean (538. eta 539. lurzatiak) eta hegoaldean (1178. lurzatiaren hegoaldea) dauden habitatek, «espazio libre edo berdegune» gisa hartuta, beren kontserbazio egoera naturala mantendu beharko dute, korridore ekologiko eta hainbat fauna espezierentzako babesleku izaten jarrai dezaten, bai eta industria eremu osoaren moteltze eremu izaten ere. Horri dagokionez, 34. eta 36. eremuetako lurzatien barruko espazio libreen proposamen bat aurkeztu beharko zaio ingurumen organo honi, balora dezan.

C. Arlo hidraulikoan eskumena duen organoaren alegazioak kontuan hartuta, aldaketa honen espedientean sartu beharko da ur hornidurako eta saneamenduko zerbitzuak kudeatzen dituen erakundearen (CARA) txostena, lehendik dauden azpiegiturak aldaketa honen ondoriozko garapenei zerbitzua emateko nahikoak diren ala ez zehazteko.

D. Organo eskudunek, hala badagokio, ezartzen dituzten oharrak hartuko dira kontuan, eragina jasan dezakeen eremua Arabako Errioxako ardoaren eta mahastiaren kultura paisaiako monumentu multzo eta Guardiako hirigune historikoko monumentu multzo gisa kalifikatzeari dagokionez. Era berean, etorkizunean 34. eremu berriaren muga osoan egingo diren lanen kontrol arkeologikoa egin beharko da, eremu arkeologikoetatik hurbil dagoelako, Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak alegazioei buruzko txostenean ezartzen duen bezala.

E. Urbanizazioaren diseinuak lehentasuna eman beharko dio lurzoruaren orografia naturalari egokitzeari, lur mugimenduak minimizatuta eta horien arteko oreka optimizatuta, soberakinak eta kanpotik ekarritakoak saihesteko edo kanpoko zabortegirik erabili behar ez izateko. Era berean, landare lurrari doazkion horizonte edafikoak modu selektiboan kenduko dira, eta komenigarria izango da berehala birbanatzea edo eremuaren ingurumena lehengoratzean berrerabiltzeko biltzea. Hala, landare lurra lanek eragindako azaleretan eta eragindako eremuaren inguruan landaredia eta lurzorua lehengoratzeko lanetan erabiliko da.

F. Eraikinen diseinuan, ahal den neurrian, ingurunean integratzen lagunduko duten formak eta koloreak erabili beharko dira.

G. Ebaluazio honen xede den Guardiako udal hirigintza plangintzaren aldaketa puntuala garatzeko jarduketen ondorioz sor daitezkeen lanak egin bitartean, ontzi estankoak, depositu iragazgaitzak edo lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegiratzeko bestelako sistema alternatiboak jarri behar dira. Debekatuta dago jada erabilita daudenak isurtzea, eta kudeatzaile baimendu bati emango zaizkio. Debeku hori sor daitezkeen hormigoi hondarrei, eraikuntzako materialei, lurrei eta abarri ere aplikatuko zaie, eta baimendutako obra hondakindegi edo zabortegi batera eramango dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraispen lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

H. Hirigintza garapen berriek zolatutako edo iragazgaiztutako azalerak ezinbestekoak diren eremuetara mugatu beharko dituzte, drainatze jasangarriko hiri sistemak ezarri beharko dituzte, eta sortzen diren jariatze urak tratatzeko neurriak aurreikusi beharko dituzte.

Horrenbestez, 10/2023 Foru Arauak, martxoaren 15ekoak, Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzkoak, 24. eta 64. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, bai eta 17/2016 Foru Dekretuak, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9koak,

Ingurumen eta Hirigintza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duenak, eta hura aldatzen duen 48/2017 Foru Dekretuak, Foru Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 3koak, xedatutakoarekin bat etorriz ere,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. «Guardiako hirigintza plangintzako arau subsidiarioen aldaketa puntuala, 34. eta 36. eremuei buruzkoa» delakoaren ingurumen inpaktuaren txostena egitea.

Bigarrena. Ingurumen txosten estrategikoa nahitaezko txosten loteslea da, 10/2021 Legeak, abenduaren 9koak, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoak, 75.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena. Ingurumen txosten estrategikoak indarraldia galduko du eta berezko dituen ondorioak sortzeari utziko dio, baldin eta «Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta lau urteko epean plana onartu ez bada, 10/2021 Legeak, abenduaren 9koak, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzkoak, 75.5 artikuluan ezarritakoaren arabera. Kasu horretan, aipatutako Legearen 75.6 artikuluaren arabera, sustatzaileak berriro hasi beharko du planaren ingurumen ebaluazioaren izapidea, ingurumen organoari indarraldia luzatzeko eskatzen badio izan ezik.

Laugarrena. 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoak, 32. artikuluan ezartzen duen bezala, plana onartu eta hamar egun balioduneko epean, honako dokumentazio hau argitaratuko da «Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean»:

a) Onartutako plana edo programa ontzat emateko edo onartzeko ebazpena, eta organo substantiboak plan edo programa horren eduki osoa jendearen eskura jarriko duen helbide elektronikoaren aipamena.

b) Ingurumen txosten estrategikoa argitaratu den ALHAOn» erreferentzia.

Bosgarrena. Ebazpen hau jendaurrean jartzea, ALHAOn eta Arabako Foru Aldundiko Garapen Ekonomikoaren eta Jasangarritasunaren Sailaren egoitza elektronikoan argitaratuz.

Seigarrena. Ebazpen hau Guardiako Udalari jakinaraztea.

Zazpigarrena. 21/2013 Legearen 31.5 artikuluarekin bat etorriz, ingurumen txosten estrategiko honi ezin zaio aurkeztu errekurtsorik. Nolanahi ere, bide judizialean errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira plana edo programa onartzen duen xedapen orokorraren aurka edo, bide administratiboan, errekurtsoak aurkeztu ahal izango dira plana onartzen duen egintzaren aurka.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko azaroaren 13a

Ekonomia Garapenaren eta Jasangarritasunaren Saileko diputatua
SARAY ZÁRATE FERNÁNDEZ DE LANDA

Natura Ingurunearen zuzendaria
MARIA JOSÉ MADEIRA GARCÍA

Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2026.11.23 06:19:36 Z